

DOMUND 2020

“Hemen nago, bidal nazazu”

- 18 DE OCTUBRE DE 2020 -

DOMUND

Aquí estoy, envíame

#DOMUND
Colabora en www.domund.es

OBRAS MISIONALES
PONTIFICIAS

MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, nº 4 – 2º
48005 BILBAO Teléfono 94 401 36 99
E-mail misiobi@bizkeliza.org

DOMUND 2020

“Hemen nago, bidal nazazu” (Is 6, 8)

Eleiza osoaren bide misiolariak jarraitu egiten dauala gogoratzen deusku Frantzisko Aita Santuak egun honetarako idatzi dauan mezuan. Gaur sekula baino beharrezkoagoa dan bokazino misiolariaren barritzaile, sortzaile, bultzatzaile eta eragile izatera bultzatu eta munduko herri guztietara Jainkoaren maitasunaren lekuko lez bialdu gaituan EHMa ospatzetik gatoz.

“Testuinguru honetan, misinorako deia, Jainkoaren eta lagun hurkoaren aldeko maitasunagaitik geure baitatik atarateko deia, banatzeko, zerbitzatzeko eta bitarteko izateko aukeratzat hartu daiteke”.

Koronabirusak eragindako krisialdian, ezin dogu alperrik galdu krisi honen ondorioz nahitaez bizi izan dogun guztitik ikasteko aukera: “ez dago une egokiagorik zeinu, laguntza, otoitza guztiek, txikiak izanda be, Eleizaren jarduera misiolarian egundoko oihartzuna dabela konturatzeko” (OMP erakundeko zuzendari nazionalaren berbak kanpaina honen inguruan).

Aita Santuak, DOMUND egun hau eta hilebete misiolaria dagokien testuinguruan jarten dituan goiburuaren –“PREST NOZU, BIALDU NEU” (Is 6, 8), goiburuaren bidez, zera nabarmendu gura dau: ezinbestekoa dala gure aldetik jarrea, geure “PRESTASUN PERTSONALA” erakustea, mandatari izateko, Bera Maitasun dalako”. Dei egiten deusku, gainera, esanez: “Abia gaitezen, irten gaitezen guztiei Jesu Kristoren bititza eskaintzera” (EG 49). Hitzok, azken batean, adore emoten deuskue ospatuko dogun misiolari jardunaldi honetarako.

Geure egingo dogu misinoen munduko jardunaldi hau Eleiza osoarekin bat eginda ospatzeko deia eta dei egingo deutsegu alkarte guztiei DOMUND eguna dala-eta misiolari lankidetzarako antolatutako askotariko jardueretan parte hartu daien. Jentea batzea gatxa izan daitekenez osasun egoeraren eraginez, lagungarriak prestatuko doguz misiolarietik hartu-emona eta gertutasuna sustatu ahal izateko.

DOMUND egun ona izan daigula egun eta hilebete misiolari hau aprobetxatu daigula hausnartzeko, ekiteko eta gure talde eta alkarteetan misiolari bokazino barriak sustatzeko!

“Jainkoak bila jarraitzen dau jentea munduko herri guztietara jentea bere maitasunaren lekukotasuna emotera bialtzeko...”, dinosku Aita Santuak.

Eskerrik asko, misinoa bost kontinenteetan garatu daiten kanpaina honetan laguntzen dozuen guztioi!

Feli Martín
Misinoetarako Elizbarrutiko Ordezkaritza

“Hemen nago, bidal nazazu” (Is 6, 8)

DOMUND egunerako mezua. 2020

Anai-arreba maiteok.

1. Frantzisko Aita Santuak aurtengo DOMUND egunerako aukeratu dituen “prest nozu, bialdu neu” Isaiasen hitzak (6, 8) entzuteak, nire barrualdea astindu egiten dauala autortu behar dot, indar handia eta ohikeriatik esnatzeko gaitasuna dabelako. Dagokien testuinguruan irakurrita, hunkigarria da Jainkoak bere misinorako gutako bakotxa aintzakotzat hartzen dauala jakitea: “Orduan, Jaunaren ahotsa entzun neban esaten: «Nor bialduko dot? Nor izango dogu mandatari?»”. Adierazpen hirukoiztarra da. Pertsonen alkartasunak deitzen, sagaritzen eta bilatzen dau salbazinoa gauzatu ahal izateko. Misinoak Hirutasunean dau sorburua. Eta harrigarria da profetaren erantzunak islatzen dauan erabakitasun eta konfiantza. “Prest nozu”. Jesusen misinoaren muina kontatzen dauan 39. Salmo ederra dakarsku gogora: “Hemen nozu, Jauna, zeure nahia beteteko”, eta, gero, Hebrearrei zuzendutako gutunean be era harrigarrian jasoko da: “Horregaitik, Kristok, mundu honetan sartzerakoan, Jainkoari esan eutsan: Ez zenduan nahi izan opari eta eskaintzarik; baina gorputza eratu zeunstan. Erre-opari eta pekatuen parkamen-oparirik ez dozu atsegin izan. Horregaitik dinot: «Hemen nozu». Liburuan agintzen jat zure nahia beteteko, ene Jainko” (Hb 10, 5-7).

2. Jesusen giza borondatea erabat itxuratzen da jainkozko borondatearekin: “Zeure nahia egitera nator”. Itxuratze honen unerik gogorrena olibondoen baratze otoitzean gertatzen da: “Egin bedi zure nahia, ez nirea” (Lk 22, 42). Jesusen borondatea Aitarenarekin itxuratze honek esaten deusku ze jokaera izan behar dogun geure bizitzan: Jesusen bokazino, sagarapen eta misinoan parte hartu, hortxe jadetsiko dau eta bere sen sakon eta osoa gure bizitzak. Itxuratze hau da gure bizitzaren giltzarria eta Eleizaren misinoaren izateko arrazoa. Sagarapen eta bialketa honek beteten dau gure historia argiz, maitasunez eta zentzuz.

3. Pandemiak eragindako osasun, ekonomia eta gizarte krisiaren testuinguruan bizi dogu DOMUND egun hau. Euskal Herriko eta Nafarroako gotzainok “Zoriontasunak pandemia aldian” pastoral idazkia idatzi geuntsuen, besteak beste honako hau gogora ekarriz: “herri eta nazioen arteko lankidetzeta eta elkartasuna sendotzea beharrezkoa dela ohartu gara. Alderdi hau bereziki garrantzitsua da gutxiago garatuta dauden herrialdeetan, non bizi-baldintza zailek okerrera egin duten pandemiaren eta bere eragin ekonomiko eta sozialak direla-eta. Gogoan ditugu Afrika eta Amerikako Eliza ahizpak, senidetasunezko lokarriek lotzen baikaituzte beraiekin. Berri kezkarriak jaso ditugu bizitzeko behar-beharrezkoa ere falta zaion familia askoren behin-behineko ekonomiari buruz” (28. zenb.). Herrialde horreetan bizi diran Eleiza ahiztetan garatzen da, hain zuzen be, gure konpromiso misiolaria. Hainbeste arrazoi badogu horreek maitasunez eta bihotz-zabaltasunez zerbitzatzeko, laguntzeko nahi hori are eta

beharrezkoagoa da gaur egungo inguruabarretan. Horregaitik gogotik, sekula baino gogotsuago esku-hartu gura dogu senide lankidetzarako konpromiso honetan, askotariko beharrianetan eta garatzen diran jarduera ebanjelizatzailean.

4. Frantzisko Aita Santuak bere mezuan, benetako prestasuna eskatzen deusku, geure konpromiso misiolaria sustatu daigun eta egun honetan, beste behin be, gure bihotzean durundi egiten dauan Jesusen deiari ilusinoz eta konfiantzaz erantzun deiogun: "Misinoa, Jainkoaren deiari emoten jakon erantzun aske eta kontzientea da, baina bere Eleizan bizirik dan Jesusekin maitasunezko hartu-emon pertsonala bizi dogunean somatzen dogu dei hori. Galdetu deiogun geure buruari: "Prest ete gagoz geure bizitzan Espiritu Santuaren presentzia onartzeko, misinorako deia entzuteko ezkontza-bizitzan, birjintasun kotsakratuan, abadetza ordenatuan edo eguneroko bizitza arruntean? Prest ete gagoz mandatarari izan eta Jainko Aita errukitsuarenganako fedearen lekukotasuna edozein lekutan emoteko, Jesukristoren salbamenaren Barri Ona hots egiteko, Espiritu Santuaren jainkozko bizitza Eleizaren eraikuntzan konpartitzeko? Prest ete gagoz, Maria Jesusen Amak lez, inongo baldintza barik Jainkoaren nahia beteteko? (ik. Lk 1, 38). Barruko prestasun hau guztiz garrantzitsua da Jainkoari erantzuteko: "Prest nozu, Jauna, bialdu neu" (ik. Is 6, 8). Eta guzti hau ez era abstraktuan, Eleizaren eta historiaren orain aldian, sasoi jakin batean, baino".

5. DOMUND egun honetan, doe lez sentitu daigula Jainkoak Ebanjelioaren aldeko maitasunezko egitekoan, Jainkoaren eta anai-arreben aldeko eskaintzan parte hartzeko egiten deuskun deia. Edozein izanda be unean-unean bizi doguzan inguruabarrak, edozein egoera graziazko une da deiari eskuzabaltasunez erantzuteko eta ilusinoz laguntzeko. Eskatu daigun profetaren hitz berekin erabakitasunez erantzuteko grazia: "Prest nozu, bialdu neu" (Is 6, 8). Eta lagudnu daigun egiteko misiolarian bakarkako eta alkarteko otoitzarekin be, diru-laguntza eskuzabalarekin, eta parrokiako, alkarteko eta eleizbarrutiko jarduera misiolarietan parte hartuz. Orduan, Isaiasek dinoan lez: "Orduan, goiz-argiak lez egingo dozu distira eta zure gatzak berehala sendatuko dira. Justizia izango dozu aurretik gidari eta Jaunaren presentzia atzetik babesgarri. Zuk dei egin eta harek erantzun egingo deusku, zuk laguntza eskatu eta harek esango: «Hemen nouzu!». Uztarri oro baztertzen eta salaketak eta txarto-esateak uxatzen badozuz, gose danari zeure ogia emoten eta behartsuaren preminari erantzuten badeutsazu, orduan, ilunpetan distira egingo dau zure argiak, zure gau baltza eguerdi bihurtuko da" (Is 58, 8-10). Be ete dago egiteko liluragarriagorik?, poz handiagorik ekarri leiken zerumugarik? Maria Birjina Misinoren Erreginak lagundu deigula eskuzabaltasunez erantzuten. Bihotz-bihotzez.

+ Mario Izeta Gabikagogeaskoa
Bilboko Gotzaina

“Hemen nago, bidal nazazu”

SARRERAKO OHARRA

“Hemen nozu, bialdu naizu”, erantzun eban Isaias profetak. Profetak pobrearen, behartsuaren alde eta munduan zuzentasuna zabaltzeko erakusten dauan sentiberatasuna dogu argi ospakizun honetan, gizadi osoa, bere lorpen eta gabeziakaz, bere aukera eta beharrianakaz, Jaunaren aurrera ekarteko. “Domund” Misinoetarako Munduko Egunean, egin daigun otoitz, “nor bialduko ete dot?” Jainkoaren erantzunak baiezko ugari jaso daian. Guztioi dei egiten jaku beste urrats bat emon daigun gure fede eta maitasun bizipenean eta Ebanjelioko balioak lekuko izanda eta gure bizitzarako garrantzitsua dana iragarritz eta horren alde konprometituz bizi daiguzan.

HOMILIARAKO OHARRAK

“Nor bialduko ete dot?” galdera Jainkoaren bihotzean, bere errukitik, sortzen da eta Eleizaren zein gizadiaren erantzuna bilatzen dau. Munduan alkarri lotuta gagoz, ezin gara bakartu, ezin dogu erabakirik hartu gainerako gizarte eta erlejino arloetan eragin barik. Eta ezin gara besteek hartzen dabezana erabakietatik kanpo geratu, gurekin zerikusirik izango ez balebe lez. Ezagutu egin behar dogu geure mundua eta bere jardunbidea Jaunaren lekuko izateko.

Kristok ataraten dau Eleiza bere baitatik. Barri Ona iragarrean, Espirituak bultzatzen gaitu eta hara edo hona eroaten. Ekimena ez da geurea; Jaunak emon deuskun bokazinoari, Jaunak egin deuskun deiari erantzuten deusagu. Erantzun horretatik, gure jarrerak, gure keinuak, gure prediku eta maitasuna, Espiritu Santuaren indarraren frutu dira.

Ez dago inor Jaunaren maitasunetik kanpo. Mundu osora Barri Ona iragartera joateko Jesusen mezuak gizadi osoa konprometitzen dau, kultura guztietara eta biziera ebanjelikoaren dinamika guztietara zabaltzen gaitu. Danek dabe Jainkoaren Hitza entzuteko, jainkozko bizitzan parte hartzeko konbitea jasoteko eskubidea. Eta guzti hau ez abstraktuan, Eleizaren eta historiaren orain aldi honetan baino.

Pandemia aldian Jainkoak esaten deuskuna ulertzea be erronka da Eleizaren misinoarentzat. Gaixotasuna, sufrimentua, bakartzea, pobretasuna... dei dira eta gure erantzuna eskatzen dabe.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jainko gure Aitari aurkeztuko deusagu munduan erromes goazan gizon eta emakume guztion aldeko otoitza. Eskaera bakotxari, **“entzun, arren, Jauna”** erantzungo deusagu.

- Frantzisko Aita Santuaren eta gotzainen alde. Jainkoaren Herriaren ondoan egon daitezana, berau sustatu eta maitatuz, eta fedea alkarte bizi eta misiolarietan bizitzen lagunduz. **Egin daigun otoitz.**

Entzun, arren, Jauna.

- Misiolarien alde. Euren jarduera ebanjelizatzailearen bidez maitasuna eta itxaropena eroan daiezan jarduten daben lekuetara eta euren bihotzetan bizi dan Jainkoaren maitasunaren lekuko izan daitezcan. **Egin daigun otoitz.**

Entzun, arren, Jauna.

- Ume eta gazten alde. Jainkoaren deia entzun eta bihotz-zabaltasunez erantzun daien, Eleizak eta munduan behar dituan misiolari bokazinoak sortu daitezcan.

Egin daigun otoitz.

Entzun, arren, Jauna.

- Heldu, nagusi eta gaixoen alde. Gogoan izan daiezan euren otoitzetan oraindik Kristoren Barri Ona jaso ez daben herriak. **Egin daigun otoitz.**

Entzun, arren, Jauna.

- Jazarrita dagozan Barri Onaren ministroen alde. Gatazka eta indarkeriaz bizi diranen fedea sendotu daiten. **Egin daigun otoitz.**

Entzun, arren, Jauna.

- Eukaristia ospatzeko batu garanon alde. Geure baitatik irten eta Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzeko deiari erantzun deiogun eta banatzeko eta beharrezanean dagozanen alde egiteko gauza izan gaitезan. **Egin daigun otoitz.**

Entzun, arren, Jauna.

Jainko gure Jauna, Jesukristo bialdu zenduan behartsuei barri ona eroatera, giltzaperatuei askatasuna eta graziazko urtea iragartera; sendotu zure Eleiza, bere iragarpena hizkuntza eta nazino guztietako gizon eta emakume guztiengana heldu daiten. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ESKAINITZA

“Domund” Misinoen Munduko Eguna ospatzea, otoitza, hausnarketa eta alkartasuna Eleizan Jesusen misinoan eraginkortasunez parte hartzeko aukera dirala berrestea da. Ogi eta ardaoaz batera aurkezten doguzan opari honeen bidez adieraziko dogu.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaurko kolektan adieraziko dogun maitasun/ALKARTASUNAREN helburua Aita Santuaren ardurapeko Misiolari Egintzen bidez garatutako misiolari egitekoan laguntzea da. Batu daiten diruagaz mundu osoko herri eta Eleizen beharrezan espiritual eta materialei aurre egingo jake, gizon eta emakume guztien salbazinoa ahalbideratzeaz batera.

ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA - OMP

Urtean zehar, misinoakaz lankidetzan jarduteko hainbat bide dago. Aita Santuak, bere aldetik, adiera hau emon gura deutse Domund eguneko munduko kolekta guztiei: Misinoko lurralde guztiei eusteko izan daitezala, katolikotasunaren, hau da, unibertsaltasunaren zeinu lez.

Aita Santuaren ardurapeko Misiolari Egintzek, OMP deitzen diranek, laguntzen banaketa zuzena bermatzen dabe, munduko Eleiza guztiek gutxienero laguntasuna jaso daien. OMP erakundeko Batzar Nagusiak, Aita Santuaren aginduz, beharrianak zeintzuk diran ikusi eta laguntzak banatzen ditu. Ekarpenen zati handiena Misinoko lurraldeetako ohiko beharrianetara zuzentzen da. Aparteko egitasmoak be babesten dira, ebanjelizazinoa eta giza sustapena aurrera eramateko.

Domund eguneko laguntzei esker, Eleizak munduko biztanleriaren erdiari, hain zuzen be Misinoko lurraldeetan bizi danari, eskaintzen deutso bere mezua.

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik **ESKERRAK** emon gura deutesueguz urtean zehar Aita Santuak Sustatutako Egintzetan erakusten dozuen eskuzabaltasunagaitik eta egiten dozuen guztiagatik. Taldeek, parrokiek, kongregazioek eta partikularrek egiten douzuezan dohaintza eskuzabalen barri dogu eta laguntza horrek herrialde desbardinetan jarduten daben misiolarien beharrian materialei aurre egiteko balio dauala esan gura deutesuegu (ikusi 'ILLUMINARE' aldizkarian).

Gure eleizbarrutiko 250 misiolari inguruk jarduten dau 50 herrialde ingurutan, euren bizia eta egitekoa beste alkarte batzuetan alkarbanatuz, Barri Ona iragarritz, Jaungoikoaren Erreinua eraikiz. Misinoen jardunaldia dala-eta, eskerrak emon gura deutesueguz euren misiolari zerbitzuagaitik eta eskerrak emon gura deutesueguz diruz laguntzen deuskuzuenoi, hori ezinbestekoa da-eta, misiolari egitekoak aurrera egin daian.

Mezu elektronikoz bialtzen dogu parrokia guztietara 2019an egin ziran kolekten bitartzen izan zan diru-sarrera.

Banku-eta kutxa-zenbakiak gogoratzen deutesueguz, nahi edo ahal izan ezkeru dirusarrerakegin daizuezan. Sarrera horreek egiterakoan, ez ahaztu **PARROKIAREN IZENA ETA DOHAINTZA NONDIK EGITEN DAN** jarrea.

KUTXABANK-BBK _____ **2095 0000 76 200002710-2**
LABORAL KUTXA _____ **3035 0019 90 019000941-8**
BBVA _____ **0182 0086 41 001491556-5**
BANCO POPULAR _____ **0075 0005 63 06012555-23**

Zuon bankuaren app-an Bizum bidez 00500 dalakoan egin daikezue ekarpena.

Misiolari guztien eta OMP erakundearen izenean, agur bero bat.

Felicitas Martín Fernández